

Fábrica de Tejidos,
Mahones azules y Estampados
DE
SORRINOS DE H. MUGUERZA
VERGARA




Industria-iraultza eta ehun-lantegiak Bergaran

Emakume eta nesken eginkizuna ehungintzan





**Bergarako
Udala**




Izenburua: Industri iraultza eta ehun lantegiak Bergaran. Emakume eta nesken eginkizuna ehungintzan

Argitaraldia: 2020ko martxoa

Argitaratzaileak: Bergarako udala

Egilea: Daiteke Gizarte Aholkularitza

Diseinua: Daiteke Gizarte Aholkularitza



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

Nondik datoz kontsumitzen ditugun arropak?

Kanbodiako langile hauen testigantzak ikusi eta hausnartu.



Zein lan baldintza deskribatzen dituzte emakume hauek? Zer deritzozue?

Desberdintasunik al daude Bergarako ehungintza industriarekin alderatuta?

Errealitate bidegabe honekin bukatzeko aukera egokia izango ote da arropa gehiago erostea?

"Fashion Victims" Salvados:


<https://www.youtube.com/watch?v=RNV09X4Rw0Y>

<https://www.youtube.com/watch?v=xvmYyk3S3oU>

1 Ariketa honi hasiera emateko zuen kamisetaren etiketa begiratzera eta honen jatorria zein den ikustera gonbidatzen zaituztegu. Bakoitzaren erantzunak arbelean idatzi dezakezue:



- 1- Zein da kamiseta hauen jatorria?
- 2- Zer bilatzen zenuten kamiseta hori erosterako unean?



2 Orain *rol-playing* txiki bat egingo dugu, horretarako, klasekideak lau taldeetan banatuko zarete. Helburua da zuen papera eta interesak defendatzea.

Pentsa ezazue 34,95€ balioko duen kamiseta bat dauka gula. Zenbat jaso beharko luke hornikuntza-kate osoko pertsona bakoitzak? Zein izango litzateke bidezko banaketa? Zatitu 34,95€ 5 zatitan (kateko elementuak). Proposatutako banaketa defendatzeko argudioak azaldu beharko ditu talde bakoitzak. Behin bukatuta benetako erantzuna irakur ezazue.

Taldeak:

- 1-Saltzailea
- 2-Marka
- 3-Agente eroslea
- 4-Lantegiaren jabea
- 5-Langilea

- 1-Saltzailea: 18,88 euro
- 2-Marka: 12,94 euro
- 3-Agente eroslea: 2,33 euro
- 4-Lantegiaren jabea: 0,30 euro
- 5-Langilea: 0,28 euro

Zerk harritzen zaitu gehiago?
Zer iruditzen zaizu
bidezkoagoa? eta zer
bidegabea?

***Ariketa hau SETEM elkartearen Munduko kirol-industriako bizitzari eta eskubideei buruzko baliabide gidan oinarritua dago.**